



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

**MUSIKA
BULEGOA**

Batzen
gaituena.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



2025

Euskal Herriko musikaren sektorearen egoera, premiak eta erronkak

Euskal Herriko Musika Bulegoa
elkartearen inkestaren emaitza

Euskal Herriko musikaren sektorearen egoera, premiak eta erronkak

Euskal Herriko Musika Bulegoa elkartearen inkestaren emaitza

➤ 1. Aurkezpena

➤ 2. Laginaren karakterizazioa

➤ 3. Begirada esanguratsuak

- 3.1 Sektorearen egoerari buruzko pertzepzio globalak
- 3.2 Sektorearen dimentsio industrialak
 - 3.2.1 Oinarrizko datuak: agenteak, enplegua eta diru-sarrerak
 - 3.2.2 Prestakuntza eta konpetentziak
- 3.3 Prestakuntza eta konpetentziak
- 3.4 Ibilbide artistikoak
- 3.5 Lan-kargak
- 3.6 Genero-ikuspegia
 - 3.6.1 Artisten profila generoaren arabera
 - 3.6.2 Enpleguaren banaketa industrian generoaren arabera

➤ 4. Sektorearen erronkak

- 4.1 Ikuspegi orokorra
- 4.2 Esparruen arabeko xehetasuna

➤ 5. Azken komentarioa

Kapitulu bakoitzean nabarmendutako elementuen bilduma

Laguntza teknikoa:
ICC-CONSULTORS CULTURALS, SL

Itzulpena:
LETE ITZULPENAK-
TRADUCCIONES, SL

Diseinua eta maketazioa:
DIAGONAL 360°

KULTURAREN EUSKAL
BEHATOKIA

Donostia-San Sebastián kalea, 1
01010 Vitoria-Gasteiz - Álava
T. 945 016 947
kulturabehatokia@euskadi.eus

1. Aurkezpena

Euskal Herriko Musika Bulegoa elkartearen (EHMBE) lankidetzarekin egindako azterlanaren emaitzak aurkeztu ditu Kulturaren Euskal Behatokiak (KEB). Behatokiaren sektoreei laguntzeko ildoaren barruan dago azterlana, eta musika-sektoreak Euskal Herrian duen irudia ematen laguntzen du, gaur egun duen egoeraren, dituen premien eta aurre egin beharreko erronken ikuspegi globala eskainiz. Sektorean inkesta digital bat banatuta egin da, eta 90 agente baino gehiagoren ahotsa jaso ahal izan da horri esker, sektorearen begirada zabal eta askotarikoa eskainiz.

Euskal kulturaren dimentsio nagusi bat da musika, eta ez soilik adierazpen artistiko bezala, baizik eta dinamismo ekonomikoarekin, eta lana lortzeko eta partekatutako nortasun bat sendotzeko aukerekin lotutako faktore bezala. Horregatik, Behatokiaren interesetako bat da musika garatzen eta sendotzen laguntzea. Sektoreko alderdi nagusiak ikusarazten laguntzen du azterlanak, eta oinarri sendo eta partekatua duten ekintza-lerroak diseinatzea ahalbidetzen dio EHMBEri zein politika kulturalari oro har.

Ildo horretan, sektoreko eragile nagusien pertzepzio ekonomikoa biltzen du txostenak, sektorearen dimentsio industrialari eta haren prestakuntza-premiei buruzko datu kuantitatiboak aurkezten ditu, segmentu artistikoa profesionalizazio-prozesuak eta ibilbide artistikoak kontuan izanda aztertzen du, eta genero-ikuspegi bat sartzen du esparruan dauden desberdintasunak ebaluatzeko. Gainera, musikaren sektoreak erakusten dituen erronkak aztertzen ditu, arreta handiagoa behar duten esparru espezifikoek ikuspuntu xehatuarekin.

2. Laginaren karakterizazioa

Sektoreko 93 agentek parte hartu dute guztira inkestan, % 58 artistak izanik eta % 42 industria gisa sailkatuta daudelarik. Karakterizazio-aldagai nagusi guztiak 1. grafikoan ikusi daitezke.

Datuak irakurtzeko kontuan hartu behar da, halaber, norberak erabaki ahal izan duela laginean parte-hartzea: EHMBEk landa-lan bat egin zuen 2024ko maiatzetik ekainera bitarte bere agente elkartuei eta bere zabalkunde-kanaletara atxikitako agenteei jarraikiz. Guztien artean zabaldu zuen inkesta bitarteko digitalen bidez telefonoaren laguntzarekin, eta parte hartzea onartu zuten agente guztien erantzunarekin egin da lagina, inolako kuota edo mugarik kontuan izan gabe.

Artisten unibertsoa mugatzea zaila bada ere, agente industrialei gagozkiela guztira 69 agentek osatzen zuten unibertsoa, kontzertu-aretoak barne. Erdiek baino gehiagok erantzun zuten (% 56,5, guztira 39 erantzun).


Interpretazioan aritzen diren pertsonak osatzen dute batez ere artisten segmentua (% 31,48) edo jarduera hori konposizioarekin konbinatzen dutenek (% 55,56). % 7,41 aritzen dira zehazki konposizioan.

Zuzenekoaren produkzioari lotutako agenteek osatzen dute gehienbat segmentu industrialak (% 61,54), eta kontzertu-aretoak eta produkzio teknikoan aritzen diren agenteak % 12,82 dira kasu bakoitzean, eta disko ekoizpena % 5,13.


“Beste batzuk” kategorien artean badira edizio musikalean aritzen direnak, management jardueran aritzen direnak, ikus-entzunezkoan aritzen direnak eta musikaren esparruko hezkuntzan aritzen direnak.

1. **grafikoa.** Laginaren karakterizazio-aldagai nagusiak


Agente motak, sailkapen orokorra (%)




Agenteak beren jardura mota orokorraren arabera (%)



Agenteen egoitzaren kokapena (%)




Agenteen jardueraren hasiera urtea (%)




1. **grafikoa.** Variables principales de caracterización de la muestra

Agenteen forma juridikoa (%)



Agenteen forma juridikoaren xehetasuna (%)




3. Begirada esanguratsuak

3.1. Sektorearen egoerari buruzko pertzepzio globalak

Emaitzak eta espektatiba ekonomikoak

Oreka dago 2023ko emaitzen balorazioan zein 2024a amaituko den moduari buruzko espektatibetan. Jarrera pesimistagoetan dauden agenteen kopurua eta optimistena ia baliokidea da, eta agenteen multzo handiena jarrera neutral batean dago, ez positiboa ez negatiboa.

2. grafikoa. Agenteak 2023ko emaitza ekonomikoen balorazioaren eta 2024ko espektatiben arabera (%)



Sektorearen bilakaeraren faktore nagusiak


Sektoreko bilakaera-faktoreen artean izaera askotarikoak aurkitu daitezke (emaitzen balorazioan eta espektatiba ekonomikoetan eragiten duten elementuak).

Lege- eta arautze-arlokoa da faktore nagusia (lan-erregulazioa eta kontratazio-baldintzak), eta merkatu-arlokoa (eskaeraren portaera, musika-kontsumorako ohitura berriak) eta ekonomia-arlokoa (finantzaketa lortzea) ditu atzetik.

Azken postuetan daude adimen artifiziala (gutxien aipatzen da sektorerako faktore garrantzitsuen artean), pizgarri fiskalak eta beste jarduera batzuekin dagoen lehia.

Tarteko posizioan daude sektorearen beraren barruko lehia eta plataforma handien inpaktua.

3. grafikoa. Emaitzen balorazioarekin eta agenteek dituzten espektatiba ekonomikoekin lotutako faktoreak (erantzun anizkuneke galdera, portzentajeek 100 baino gehiago batzen dute)



3.2 Sektorearen dimentsio industrialia

3.2.1 Oinarrizko datuak: agenteak, enplegua eta diru-sarrerak

69
agente¹

646
enplegatu²

39,5
milioi euroko diru-sarrerak²

¹ Aztertutako enpresen unibertsoa osatzen duten agenteen kopurua


² Datuaren kalkulua laginean lortutako datuaren proiektzioan oinarrituta

Agenteak

Zuzenekoak produzitzen dituzten enpresek osatzen dute gehienbat sektoreko industria-segmentua (% 47,8). Segmentu handi hori batez ere zuzenekoaren produkzioan aritzen diren enpresen % 27,5ek eta zuzenekoaren produkzioa, disko ekoizpena/grabaketa-

estudioarekin konbinatzen dituen beste % 20,3k osatzen dute. Zerbitzu tekniko eta osagarrietako enpresak % 30,4 dira guztira eta, azkenik, kontzertu-aretoak sektorearen % 21,7 dira.

4. grafikoa. Sektoreko enpresen jardura (%)




Enplegua

Agentearen profil nagusiak, enpleguaren ikuspuntutik begiratuta, 2-5 langile ditu (% 41). Sektoreko segmentu industrialaren zati txiki bat pertsona bakarreko edo langile bakar bat duten enpresak dira (% 15,4).

Beste muturrean, % 23,1k 5-15 langile ditu, eta % 20,5 esanguratsu batek 15 langile baino gehiago ere baditu. Hori horrela, alde garrantzitsuak ikusten dira sektoreko agenteen produkzio-gaitasunean, erdi bat

tamaina txikikoa eta beste erdia tamaina ertain edo handikoa izanik.

5. grafikoa. Segmentu industrialeko agenteen ehunekoa 2023ko langileen kopuru-tartearen arabera




Diru-sarrerak

Diru-sarreraren kontzeptuan alde handiak ikusten dira berriz ere sektorean, agente txiki askorekin eta baita, diru-sarrerak sortzeko

gaitasun handiarekin. % 20,2 bat 80.000 eurotik beherako tartean dago, eta beste % 23,1 bat milioi bat baino gehiagoko

tartean. Sektoreko multzo handiena bitarteko tartetean dago (urtean 80.000 eta milioi 1 euro bitarteko diru-sarrerekin).

6. grafikoa. Segmentu industrialeko agenteak 2023ko urteko diru-sarreraren tartearen arabera (%)




Segmentu industrialeko agenteen zati txiki batentzat (hamarretik bat) musikatik datozen diru-sarrerak bigarren mailakoak dira. Gutxi gorabehera hamar kasutatik hirutan musikatik datozen diru-sarrerak,

diru-sarrera nagusiak izanik, beste sektore batzuetako jardueratik datozen diru-sarrerekin osatzen dituzte. Bestalde, diru-sarreraren osagarritasun-egoeraren desiragarritasunari erreparatzen badiogu,

hamar agentetatik hiruk egoera hori ez dela desiratutakoa diote, baina hamarretik seik modu positiboan balioesten dute diru-sarreraren aniztasun hori.

7. grafikoa. Pertsonak musikaren sektoretik datozen diru-sarreraren pisuaren arabera (musikarako dedikazio nagusia edo bigarren mailakoa) (%)




Interesgarria da kontuan izatea segmentu artistikoaren barruan musikan dituzten diru-sarrerak bigarren mailakoak direla adierazten duten pertsonen kopurua bikoitza baino askoz gehiago dela, eta gehienek desio ez den egoera bat dela adierazten dutela (**17. eta 18. grafikoa**). Industrien segmentuan, ordea, (batez ere zuzeneko produkzioan aritzen dira), beste dedikazio batzuk dituzten agenteek desiratutako

dedikazio bat dela adierazten dute, eta, hori horrela, estrategia bat da dibertsifikazioa.

Azkenik, nabarmentzekoa da jarduerak dela diru-sarreraren bide nagusia sektoreko 10 agentetatik 7rentzat. Diru-laguntzen pisua areagotu egiten da agente txikietan (% 35,7). Perspektiban izan behar da betiere dirulaguntzak ehuneko txikia direla beste agenteen artean, baina zenbaki absolututan,


8. grafikoa. Beste jarduerak batzuetara dedikatutako pertsonak, dauden desiragarritasun-egoeraren arabera (%)



aldiz, mugitzen duten aurrekontua kontuan izanik, garrantzitsuak izan daitezke.

Nabarmentzekoa da, halaber, goiko tartean jarduerak bera edo dirulaguntzak ez diren kontzeptuetatik datozen diru-sarrerak pisu handiagoa dutela. Kasu horretan management jarduerako enpresak, kontzertu-aretoak eta disko ekoizpena daude.

9. **grafikoa.** Diru-sarreraren jatorria diru-sarreraren globala eta tarte guztiak bereiziz (%)



3.2.2 Prestakuntza eta konpetentziak

Profil eskatuena eta kontratatzeko zailtasunak

Zuzeneko ikuskizunaren teknikariarena da alde handiarekin profil eskatuena (kasuen % 70,9an aipatua). Kontuan izan behar da zuzenekoaren produkzioa dela sektoreko jarduera nagusia.

Publizistak eta marketineko profesionalak, baita kontzertu-sustatzaileak ere, datoz ondoren, baina alde handiarekin (% 26,9 eta % 23,9, hurrenez hurren).

Egile-eskubideen eta lizentzien kudeatzaileak, eraldaketa digitalen testuinguruan garrantzi handiagoa hartzen duen gaia izanik, kasuen % 13,7an aipatzen da.

Testuinguru horretan, agente industrial gehienek (% 51,2) adierazten dute zailtasun handiak dituztela langileak aurkitzeko (11. grafikoa). Ulertzekoa da, profil eskatuenei jarraikiz, zuzeneko


10. grafikoa. Agente industrialek gehien eskatutako profilak (%)
Erantzun anizkuneko galdera. Portzentajeek 100 baino gehiago batzen dute.



ikuskizunaren teknikariak direla bereziki. Gutizkoaren % 7k baino gehiagok zailtasun dezente edo asko dituela adierazten du. Lanbide-esperientziak hezkuntza-tituluek baino pisu handiagoa du haientzat. Prestakuntzari dagokionez, zertxobait gehiago balioesten dira ikastaro


espezializatuak titulazio profesionalak edo unibertsitate-titulazioak baino. Hori guztia kontuan izanda badirela ikastaro eta prestakuntzak soinu-teknikarien esparru espezifikoan, inkestari erantzun dioten agenteek berek adierazten dutenez eta 12. grafikoa aipatzen denez.

11. grafikoa. Agenteak beren sektorean langileak kontratatzeko izandako zailtasunen arabera (%)




12. grafikoa. Curriculum-alderdi balioetsiena 1etik 3rako eskala batean (balioetsiena eta gutxien balioetsiena, hurrenez hurren)

1. Ibilbide profesionala [1,46/3]
2. Egindako ikastaro espezifikoak [2,18/3]
3. Titulazio profesionalak edo unibertsitate-titulazioak [2,36/3]



Gaitasun balioetsienak

13. grafikoa. Zenbait konpetentziaren garrantziaren balorazioa eta gaitasun horiei dagokienez egungo prestakuntzaren balorazioa (batezbestekoak gutxien balioetsitako 1etik gehien balioetsitako 5erako eskala batean).



(birkodifikatutako batezbestekoak, kopuru handiagoa = lehentasun handiagoa izan dadin)

Zuzeneko ikuskizunetako teknikariaren irudiaren garrantzia gorabehera, gehien balioetsitako konpetentzia ez da ekipamendu teknikoa menderatzea (garrantzitsuenetakoa bada ere, logikoa denez), baizik eta enpresa-lidertzarako gaitasuna. Egungo prestakuntza bere garrantziaren azpitik balioesten da gaitasuna horretarako. Lan- eta ekonomia-

administratzaileentzako eta eskubideen kudeaketarako konpetentzien kasuan, prestakuntza oso justutzat balioesten da halaber. Zuzeneko produkzioan aritzen diren agenteen nagusitasuna gogorarazi behar da eskubideen eta lizentzien kudeaketaren garrantzi txikia ulertzeko. Eragileen balorazioaren arabera, hobekien betetzen den prestakuntza-eremua

marketina, komunikazioa eta harreman publikoak dira, bai eta gaitasun digitalak ere. Ekipamendu teknikoa menderatzeko gaitasuna dator atzetik, eta, daukan garrantzia gorabehera, 3,15ean geratzen da 1etik 5erako eskala batean (okerren balioetsitako prestakuntza eta hobekien balioetsitako prestakuntza, hurrenez hurren).


Prestakuntza-eskaintza eta egungo tituluak

Balorazio horiek gorabehera, nabarmentzekoa da prestakuntza-eskaintzari buruz ezezagutza handia dagoela musikaren jarduera industrialen

segmentuan (esparru artistikoan, hurrengo atalean adierazten denez, ongi egituratuta daude hezkuntza-gradu formalak). Egungo eskaintza espezifiko txikia izan liteke horren arrazoia. Lanbide heziketako prestakuntza nabarmentzen da egungo eskaintza nagusi bezala, zuzenekoaren produkzioak asko

markatzen duen sektore industrial baten testuinguruan, bereziki soinu eta ikus-entzunezkoen teknikarien prestakuntzara bideratua. Esparru horretan, beste figura espezializatu batzuen garrantzia ere kontuan izanda (eskubideen kudeaketa, bitartekariak, sustatzaileak...), nabarmentzekoa da ikastaro espezializatuen garrantzia.

14. grafikoa. Musikaren jarduera industrialen sektorean gaur egun dagoen prestakuntza-eskaintza motarako hurbilketa (%)



Laburpena

- Zuzenekoak produkzioak osatzen du musikaren segmentu industrialaren multzo nagusia. Sarritan disko ekoizpenaren edo grabazio-estudioekin konbinatzen den jarduera da.
- Segmentu industrialeko agenteek guztira 646 pertsona enplegatzen dituztela eta 39,5 milioiko diru-sarreraren bolumen totala mugitzen dutela kalkulatu da.
- Oro har, 2 eta 5 langile arteko enpresak dira; nahiz eta, pertsona bakarreko agenteak, 15 langiletik gorako agenteak adina badiren. Heterogeneotasun nabaria dago, horrenbestez.
- Diru-sarrerei dagokien ere hori bera ikusi daiteke, nahiz eta diru-sarreraren tarteak ohikoenak izan, 80.000 euro baino gutxiago fakturatzen duten

agenteak milioi bat baino gehiago fakturatzen dutenak adina dira.

- Sektoreko industria-segmenturako, kasuen erdian diru-sarrerak musikatik datoz erabat, eta beste erdian nagusiak dira (beste batzuekin osatuak badira ere) edo baita sekundarioak ere. Oro har, desiratutako egoera bat da hau, dibertsifikazio-egoera bat dagoela adieraziz. Ikusiko denez, diru-sarreraren osagarritasunaren arazoa askoz ere nabariagoa da artisten artean.
- Sektoreko agente txikien artean (urtean 80.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak) dirulaguntzen pisua gainerakoen artean baino askoz ere handiagoa da, kasu guztietan ere diru-sarrera nagusiak jardueratik datozen arren. Tamaina handieneko agenteetan (urtean milioi bat baino gehiagoko diru-sarrerak) tarteetakoetan ez bezalako patroia ikusi daiteke (jarduera diru-sarreraren %

80-% 90 da tarte horietan): diru-sarreraren % 35 inguru jardueraz eta dirulaguntzez bestelako iturrietatik datoz.

- Sektorean zuzeneko ikuskizunen teknikariena da profilik eskatuena, eta musikaren segmentu industrialaren problematika espezifiko baten adierazgarri da hori. Beharrezko langileak kontratatzeke zailtasun nabarmenak dituela adierazten du sektorearen zati handienak.
- Prestakuntzari eta gaitasunei dagokienez, nabarmendu du balioetsiena ibilbide profesionala dela, lehenik, eta egindako ikastaro espezifikoak, bigarrenik. Soinu-teknikarien prestakuntza espezializatuak daudela kontuan hartuta, litekeena da hobekuntzarako marjina izatea eskaintza-eskari loturan eta lanbidea erakargarri egiteko premian hobetzeko tarte dago.

3.3 Profesionalizazio artistikoa

Hainbat dimentsiori erantzuten die arteetako profesionalizazioak, hala nola jarduerak garatzeko hartzen duen forma juridikoa, dedikazioa jardueraren eta diru-sarreraren klabea, eta prestakuntza. Dimentsio anitzeko errealitate bat denez, profesionalizazioa posible da, nahiz eta musika ez izan jarduera ekonomiko nagusia, nahiz eta prestakuntza arauturik ez egon eta nahiz eta maila juridikoan jarduera modu informalean garatu ere.


Forma juridikoaren klabea

Langile autonomoaren figuraren bidez gauzatzen da batez ere musikan karrera artistikoen garapena (% 47,8): %43,2 alta iraunkorrak eta % 4,6 aldizkako altak erregimen horren barnean. Bigarren tokian dago lan-kontratazioa (% 43,2): emanaldien

araberako lan-kontratazioa % 29,6, kontratazio erregularrarekin batera, % 4,6. % 15,9k modu informalean garatzen du bere jarduera. Datu horrek, langile autonomoen

erregimenean altek duten aldizkakotasuna gehituta, zailtasunak eta prekarietatea nabarmentzen ditu lan artistikoaren garapenean.

15. grafikoa. Pertsonak jarduera artistikoaren forma juridiko guztietan (%)



Diru-sarreraren eta jardueraren klabea

16. grafikoa. Segmentu artistikoan musikatik datozen diru-sarreraren banaketa




Forma juridikoen araberako begiradak sektorean modu informalean lan egiten duen segmentu txiki bat dagoela erakusten du, baina kontuan izan behar da ehuneko handiago batek gutxieneko soldatak baino diru-sarrera txikiagoak sortzen dituela (16.000€ gutxi gorabehera 2024an). Inkestako datuek nolabaiteko polarizazioa erakusten dute, bi segmentu zabalenak

muturretan kontzentratuta daudelarik (urtean 15.000 euro baino gutxiago eta 30.000 euro baino gehiago).


Horrela, ez dira harritzeko modukoak musikaren sektorean jardueratik datozen diru-sarrerak duten pisuari buruzko datuak: 10 pertsonatatik gutxi gorabehera 4k beren diru-sarrerak beste lan batzuetatik

datozenekin osatu behar dituzte. Honela, 10etik batek musikatik datozen diru-sarrerak ditu nagusiak eta bestelako jarduerekin osatzen ditu diru-sarrera horiek, baina 10etik 3rentzat musikatik jasotako diru-sarrerak bigarren mailakoak dira. Kontuan izan behar da diru-sarreraren osagarritasun-egoera horretan dauden 10 pertsonatatik 8rentzat egoera hori ez dela desiragarria.

17. grafikoa. Pertsonak musikaren sektoretik datozen diru-sarreraren pisuaren arabera (dedikazio nagusia edo bigarren mailakoa) (%)




18. grafikoa. Beste jarduerak batzuetara dedikatzen diren pertsonak, pertsona horiek daukaten desiragarritasun-egoeraren arabera (%)



Hori guztia kontuan izanda, gainera, irakaskuntza-jarduerarekin osatzen da sarritan sorkuntza-jarduerak. Guztizkoaren bi herenetan egiten da jarduerak mota hori, erdi batean jarduerak nagusia izanik eta beste erdian, aldiz, jarduerak osagarri bat. Irakaskuntzak, horrenbestez, funtsezko garrantzia du sormenari eusteko.

19. grafikoa. Pertsonak irakaskuntzarako dedikazio motaren arabera




Jarduera profesionalarekin lotutako puntu batek pertsonak kontratazio-baldintzetan irregulartasunei eta prekarietateari aurre egin behar izan dieten sarritasunarekin du zerikusia. Azpimarratzekoena zera da, ia guztiek adierazten dutela gutxi-asko ohikoak izan direla berentzat horrelako egoerak


eta oraindik ere gertatzen direla (kasu batzuetan sarriago eta beste batzuetan ez hainbeste). % 27k adierazten dute behin baino gehiagotan errepikatutako egoera izan dela, % 29,6k sarri samar bizi izan dutela eta % 31,8k beti edo ia beti. Era berean, % 41,4k adierazten dute gaur egun oraindik ere bizi

dutela eta ez soilik bere karreraren hasieran, sarritasun txikiagoarekin bada ere. Baina, aldi berean, % 33,9k adierazten dute sarritasun berarekin gertatzen zaiela.

20. grafikoa. Pertsonak, kontratazio-baldintzetan irregulartasuna eta prekarietatea bizi duten edo bizi izan duten sarritasunaren arabera (%)




21. grafikoa. Beren egoera karreraren zehar hobetu dela uste duten pertsonak (%)



Prestakuntzaren klabeak

22. grafikoa. Pertsonak prestakuntza artistikoan duten mailaren arabera (%)



Musikaren segmentu industrialerako gertatzen denaren aurka, irakaskuntza artistikoen sistema formal eta arautu bat dago artisten segmentuan. Testuinguru horretan, erdia baino gehiagok goi-mailako prestakuntza dutela ikusi daiteke, goi-mailako titulua edo masterra. Hala eta guztiz ere, oinarrizko tituluen, profesionalen eta beste prestakuntza batzuen artean

aniztasun handia dago. Beste prestakuntzak beste erakunde batzuen titulu propioak edo beste sektore batzuetako prestakuntza dira. Kasu batek bere esparruan praktika eta autodidakta izatea ere funtsezkoak direla nabarmentzen du. Karrera artistikoen esparruan (musikan zein esparru horretatik kanpo), prestakuntza sistema formal eta arautu bat badago ere, zenbaitetan badago

oso garrantzitsua izan daitekeen osagai informal bat, talentuarena eta dedikazio pertsonalarena. Arrazoi horregatik gertatzen da, beste sektore batzuetan gertatzen denaren aurka, arteen eta sormenaren sektorean zenbaitetan garrantzitsuagoa dela ibilbide artistikoa prestakuntza baino.

Laburpena

- Artista musikalen segmentuan lan egiteko modu nagusia langile autonomoaren erregimena da, baina emanaldien araberako lan-kontratazioa ere garrantzitsua da halaber.
- Nabarmentzekoa da lan informala zati txiki baina esanguratsua dela, zenbait bereiztasuni gehitzen zaiona, hala nola autonomoen erregimeneko altak eta bajak (aldizkakotasun oso nabarmena duelarik).
- Artista musikalen segmentuko pertsonak adierazten dutenez, oso sarri bizi dituzte egoera irregularrak eta prekaritatearekin lotutako egoerak kontratazio-baldintzetan. Inork ez du adierazten ez dituela inoiz bizi izan. Pertsonak oro har adierazten dute egoera horiek oraindik ere bizi dituztela,

batzuetan sarritasun txikiagoarekin bada ere, eta ez direla soilik beren karreraren hasieran gertatutako fenomeno bat.

- Artisten segmentuaren diru-sarrerak askotariko errealitatea erakusten dute, eta berriz ere diru-sarrera txikiko kasuak (urtean 15.000 euro baino gutxiago) diru-sarrera handiko kasuak (urtean 50.000 euro baino gehiago) adina dira.

- Segmentu industrialean gertatzen denaren aurka, artisten segmentuan egoera nagusia diru-sarrera guztiak sektore berean garatutako jardueratik etortzea bada ere, beren jarduera sektorean bigarren mailakoa dela adierazten duten agenteen ehunekoa 10etik 3koa da eta, praktikan gehienentzat, hori ez da egoera desiragarria.

- Irakaskuntza da artistentzako diru-sarrerak osatzeko estrategia nagusia, eta kasu askotan horixe izaten da irtenbide nagusia, hain zuzen ere.

- Segmentu artistikoaren prestakuntza-maila ere oso desberdina da: gutxieneko esanguratsu batek (% 22) ez dauka prestakuntza artistiko arautua eta bosten batek (% 15) funtsezko prestakuntza bat du; erdiak gutxi gorabehera goi-mailako titulazioa eta master-titulazioa du. Gaitasun artistikoen berezitasuna uzten du horrek agerian, eta sarritan praktikarekin, ikaskuntza autodidaktarekin eta talentuarekin daude lotuta.

3.4 Ibilbide artistikoak

Tipologiak

Aldez aurretik azaldutakoa kontuan izanda, jarduerari dagokionez sektorean diru-sarreraren, jardueraren edo forma juridikoaren klabeen dauden egoeren aniztasuna kontuan hartuta, ez da harritzekoa prestakuntzaren eta lanaren arteko trantsizio-ibilbideen aniztasuna. Nabarmentzekoa da gehiengo batek bere ibilbidea oraindik ere ezegonkorra dela adierazten duela.


Ildo horretan, zehaztu behar da errealitate hori bereziki karrera motzagoak dituzten pertsonen bizi izandakoa dela, nahiz eta 2005. urtearen aurretik hasitako karreraren % 25ean musikaren sektorean duten lana beste lan batzuekin konbinatzeko premia-egoeran daudela adierazten duten. Denboran karrera luzeagoak dituzten pertsonen kasuen, gehienak musikaren munduan egonkortasun-egoera batean daudela ikusi daiteke. Azterlanaren laginari eta jarduera hasi zen batezbesteko urtearekiko (2005.

urtea) ibilbideen sailkapenari kasu eginez, nabarmentzekoa da egonkortasuna lortzeko ia 20 urte behar direla.

Egun dauden zailtasunen adierazgarri da hori. Egoera urteak aurrera egin ahala

hobetzen ari dela egia bada ere, hori ez da beti eta pertsona guztientzat gertatzen, eta haietako asko modu prekarioan bizi dira orain ere musikaren esparruan.

23. grafikoa. Agenteak ibilbide mota bakoitzean, haien jardueraren hasiera-urtearen arabera bereiziz (2005 da batez besteko urtea, eta horrek balio du bereizketa-puntu gisa) (%)



Ibilbide artistikoak bultzatzeko eta sendotzeko faktoreak


Batzuek eta besteek beren karrerak bultzatu eta sendotu dituzten faktoreak zein diren erabakitzeke duten iritzia ikusita konbergentziak eta dibergentziak aurkitu daitezke:

- Bi profilak (beren karrerak 2005a baino lehen hasi zituztenek eta geroago egin zutenek) bat datoz harreman pertsonalen sarea eta kolaborazioak gako-faktorea direla esatean. Denboran berriagoak diren karrerak egin dituzten agenteek nabarmentzen dute hori gehienbat.
- Bi kasuetan ere praktika eta metatutako esperientzia garrantzi handiz nabarmendutako faktoreak dira, eta, horrenbestez, indartu egiten da denbora-ibilbidea beharrezkoa delako ideia.
- Denboran luzeagoak diren ibilbideak dira, oro har, gainerako faktoreak garrantzi handiagoz nabarmentzen dituztenak. Denboran berriagoak diren karrerek emandako iritziari kontrajarrita,

garrantzitsuagoak iruditzen zaizkie laguntzak eta dirulaguntzak, hala nola deialdi publikoak eta egonaldi artistikoak, gauzazko diru-laguntzak (aholkularitza), eta ezagutzen eguneratzea eta prestakuntza espezializatua.

- Denboran berriagoak diren ibilbideen kasuan soilik faktore bat nabarmentzen dute garrantzi handiagoz: sariekin, aitortza publikoarekin eta arreta mediatikoarekin lotutakoa.

24. grafikoa. Ibilbide artistikoak bultzatzeko eta sendotzeko faktoreen balorazioa, jardueraren hasiera-urtearen arabera bereiziz, 1etik 5erako eskala batean (garrantzia gutxi eta oso garrantzitsua, hurrenez hurren)



Aurrekotik ondorioztatu daiteke denboran berriagoak diren ibilbideek uste dutela guztia gehiago dagoela beren mende (praktika eta kontaktu-sarea dira oinarrian garrantzitsuak), eta ibilbide zaharragoek, aldiz, uste dute

eurek egiten dutena garrantzitsua dela, baina laguntza publikoa ere funtsezkoa dela. Ildo horretan, denboran berriagoak diren karrerak ez dira hainbeste jabetzen laguntza publikoaren premiaz edo kritikoagoak dira,

eta aldeak markatzeko garrantzi txikiagoa dutela nabaritzen dute.

Laburpena

- Ibilbide artistiko prekario eta ezegonkorra ohikoak dira sektorean, baita jada nolabaiteko egonkortasuna lortu dutenentzat ere. Artista musikalen segmentuko pertsona askok nahitaez konbinatu behar dute beren lan artistikoa beste lan batzuekin, nahiz eta, ikusi zen bezala, beren nahia lan horretan osorik aritzea izango litzatekeen.
- Errealitate desberdin baten irudia indartzen dute datuek, eta ikusi daiteke prekaritatea askoz ere lotuagoa dagoela berriago sektorean sartutako pertsonekin (batezbestekoarekin alderatua; 2005etik aurrera).

- Kontaktu pertsonalen sarea eta kolaborazioen garapena nabarmentzen dira ibilbideen garapenaren funtsezko faktore gisa. Batezbestekoa baino berrikiago sartutako pertsonak adierazten dute hori bereziki.
- Bigarren faktore garrantzitsuena esperientzia eta praktika metatua da, non karrera zaharragoak zein berriagoak dituzten pertsonak bat datozen.
- Bereziki interesgarria da faktoreen irakurketa egitea denboran zaharragoak diren karrerak bereiziz. Kasu horietan garrantzi askoz ere handiagoa ematen zaie laguntza publikoari lotutako faktoreei (laguntza ekonomikoetan zein gauzazkoetan) eta prestakuntzari

(hasierakoari zein ezagutzen eguneratzeari). Garrantzitsuagoa iruditzen zaie, halaber, programazio ezagunen parte izatea beren karrerak garatzeko, baina ez hainbeste sariak eta arreta mediatikoa.

3.5 Lan-kargak

Oro har, lan-karga, xurgatu eta kudeatzeko “normala, konplikatua izateko joera duena” jotzen da. Horrenbestez, alde argia dago segmentu artistikoaren eta industrialaren artean: lehenengoei zailtasun eta estres handiagoarekin bizi dute, eta bigarrenek, aldiz, egoera normal bat bezala onartzen dute neurri handiagoan (nahiz eta balantza kasu horretan ere zailtasunen aldera erortzen den azkenean).


Lan-kargaren osagaien azterketan jarduerak markatzen ditu bi segmentuen arteko aldeak:

- Ekitaldien kudeaketa eta produkzioa da garrantzitsuena industriarentzat, kudeaketa administratiboarekin batera.
- Artisten kasuan sorkuntza musikaletik, eta entseguetatik eta kontzertuen prestaketatik dator, batez ere, lan-karga.
- Kudeaketa administratibo garrantzitsua da segmentu artistikoarentzat lan-karga gisa, baina are gehiago da segmentu industrialarentzat.


- Komunikazioa eta management digitala karga esanguratsua dira segmentu artistikorako, eta halaxe dira ikaskuntzak

ere (askok musikaren sektorean dituzten diru-sarrerak jarduera horrekin osatzen dituzte).

25. grafikoa. Agenteen ehunekoa lan-kargaren bizipenaren arabera, segmentu artistikoa eta industrial bereiziz.



26. grafikoa. Lanerako hainbat zeregin inplikatzeko dituen kargaren balorazioa 1etik 5erako eskala batean (gutxiena eta gehiena, hurrenez hurren), segmentu artistikoa eta industriala



Laburpena

- › Lan-kargaren multzo osorako balorazioak zertxobait negatiboa izateko joera du, eta zailtasunek eta estresak markatzen dute.
- › Laneko egunerakoa estres eta zailtasun handiagoarekin bizitzen dute pertsonek segmentu artistikoan. Segmentu industrialean, agente askok gehiegizko lan-karga dagoela onartzen badute ere, normaltasun-egoerak ohikoagoak dira.
- › Segmentu bakoitzean lan-karga nagusiak, ohi denez, bere jarduera nagusiarekin du zerikusia (gehienbat, kasu batean ekitaldien kudeaketarekin eta produkzioarekin, eta bestean sorkuntzarekin eta entseguarekin). Horregatik, nabarmentzekoa da kudeaketa administratiboa (legala, fiskala, kontablea...) segmentu

industrialean karga handiagoa dela. Segmentu artistikoan, aldiz, komunikazio eta management jarduera dira, irakaskuntza emateko eta prestakuntza propioa egiteko premiarekin batera.

3.6 Genero-ikuspegia

3.6.1 Artisten profila generoaren arabera


Jardueraren hasierako batez besteko urteari kasu eginez, emakumea sektorean berrikiago sartu dela ikusi daiteke. Kontuan izan behar da batez beste laginean dauden gizonak baino 3 urte eta erdi gazteagoak

direla. Nolanahi ere, emakumeek ibilbide prekarioagoak bizi dituztela ikus daiteke: oso gutxi daude trabarik gabeko kategorian, eta gehiago dira ibilbide ezegonkorrean eta, bereziki, ahulean.


Horrela, ez da harritzekoa emaitzen eta espektatiba ekonomikoen balorazioa okerragoa izatea emakumeen kasuan

gizonenean baino. Oso emakume gutxik egiten dituzte balorazio positiboak, baina ez dira posizio negatiboetan kontzentratzen (posizio horiek ia berdina dira gizonentzat eta emakumeentzat), neutroetan baizik, eta, era berean, gehiago dira erantzuten ez dutenak.


27. grafikoa. Jardueraren hasierako batez besteko urtea, generoaren arabera




28. grafikoa. Prestakuntzaren eta lanaren arteko ibilbideen tipologia, generoaren arabera (%)



29. grafikoa. urteko balorazio ekonomikoa eta 2024. urteko espektatibak artisten generoaren arabera bereizita (%)



30. grafikoa. Gizonak eta emakumeak urteko diru-sarreraren tarte bakoitzean 2023an (%)




Diru-sarreraren gaineko begiradak alde hori nabarmentzen laguntzen du: gizonak emakumeen bikoitza dira diru-sarrera handien segmentuan, eta emakumeak gehiengoa dira diru-sarrera txiki eta ertainetan.

Bultzatzeko eta sendotzeko faktoreen artean, emakumeak zein gizonak bat datoz kontaktu-sareak eta kolaborazioek duten garrantzi nagusian. Hasierako prestakuntzaren eta gizonak garrantzi handia ematen dioten prestakuntza jarraitu edo espezializatuaren balorazioan

ikusten dira alde nagusiak, eta sarien balorazioan, aitortzan, arreta mediatikoan, eta programazio ospetsuetan sartzean, emakumeek garrantzi handiagoa ematen dioten jenerotako laguntza publikoarekin batera.

31. grafikoa. Ibilbideak bultzatzeko eta sendotzeko faktoreen balorazioa gizonen eta emakumeen artean bereiziz (1etik 5erako eskala, garrantzi txikia eta garrantzi handia, hurrenez hurren)




Kontuan izan behar da prestakuntzan hasierako desberdintasun bat dagoela,

emakumeek goi-mailako edo masterreko titulazio gutxiago baitituzte eta, oro har,

titulazio arautu eta formal gutxiago.

32. grafikoa. Gizonen eta emakumeen banaketa beren prestakuntza motaren arabera (%)




Aurreko guztiarekin, ez da harritzekoa emakumeen kasuan musikaren sektoretik datozen diru-sarreraren osagarritasuna

handiagoa izatea. Edozein kasutan, beren diru-sarrerak beste jarduera estra musikalekin osatu behar dituztenen artean

nabarmen handiagoa da musika beren diru-sarrerara iturri nagusia dela adierazten duten emakumeen pisua gizonena baino.


33. grafikoa. Jardueraren pisua musikaren sektorean diru-sarreretan gizonak eta emakumeak bereiziz (%)



Horrekin guztiarekin ez da harritzekoa halaber emakumeek sarriago pairatzea irregulartasunak eta prekarietate

kontratazio-baldintzetan eta zailtasun handiagoak izatea lan-kargei aurre egiteko, dimentsio horretan emakumeek posizio


34. grafikoa. Osagarritasun-egoeraren desiragarritasuna gizonak eta emakumeak bereiziz (%)




*Portzentajeek ez dute % 100 batzen ez direlako kontuan hartzen galdera ez dagokielarik erantzun duten pertsonak (gehienbat diru-sarrera guztiak musikatik lortzen dituzten pertsonak)

okerragoa dutela ere ikusten delarik.


35. grafikoa. Irregularitasuneko eta prekarietateko egoerak bizi izan dituzten sarritasunaren balorazioa (1 inoiz edo ia inoiz ere izanik, eta 5 beti edo ia beti)



36. grafikoa. Kontratazioan irregularitasun eta prekarietate egoerak bizi dituzten neurriaren balorazioa, gizonen eta emakumeen arabera (%)



37. grafikoa. Lan-kargaren bizipenaren balorazioa, gizonen eta emakumeen arabera (%)




3.6.2 Enpleguaren banaketa industrian generoaren arabera

Enpleguari dagokionez, nabarmentzekoa da, lehenik, emakumeak gutxiago direla (laginaren emaitzekin, % 39,7 dira eta gizonak, aldiz, % 60,3). Banaketari dagokionez, emakumeak gizonekin

alderatuta sektorean nola banatzen diren ikusita (horrenbestez, postu guztietan emakume gutxiago izatearen efektu orokorra saihestuz), gehienbat ikusten da emakumeek presentzia txikiagoa dutela gerentziako postuetan edo zeharkakoetan (pertsonek zeregin guztiak bertan egiten

dituzten pertsona bakarreko enpresei edo enpresa oso txikiei estaldura emateko gehitzen da zeharkako kategoria). Sektore osoa hartuta, ordea, modu ekitatiboan dute presentzia handiagoa, eta ez dago bereziki nabarmentzen den posturik.

38. grafikoa. Hainbat lanposturen banaketa, gizonen eta emakumeen arabera (%)



Laburpena

- Adierazleen eta aldagaien multzoa hartuta, emakumeek emaitza okerragoak lortzen dituzte gizonekin alderatuta.
- Emakumeak beranduago sartu dira sektorean eta, nahiz eta gazteagoak ere izan, ibilbide artistiko prekarioagoak dituztela adierazten dute. Emakumeen % 15ek egoera oso ahulak adierazten dituzte (ia gizon bakar batek ere ez ditu adierazten), eta gizonen % 28k ibilbide sendiagoak adierazten dituzten bitartean, emakumeen % 10ek soilik adierazten dute hori.
- Emakumeen espektatibak gizonenak baino pesimistagoak dira, eta ia emakume bakar batek ere ez du aurreikusten 2024a urte ona izango denik (gizonen kasuan, %

22k aurreikusten dute). Gainera, ziurgabetasuna handiagoa da emakumeen artean (% 15ek ez dute espektatibei buruzko galdera erantzun, eta gizonen artean % 3 dira soilik).

- Artisten diru-sarreraren tarteei erreparatuz, emakumeak diru-sarrera txikien tartean gehiengoa direla ikus daiteke (10.000 euro baino gutxiago; haien % 43) eta gizonak gehiengoa direla diru-sarrera handien tartean (30.000 euro baino gehiago; haien % 47).

- Horrela, ez da harritzekoa, gehienak musikatik datozen diru-sarreretatik bizi badira ere, gizon baino emakume gehiago izatea beren diru-sarrerak osatu behar dituztenak.

- Sarritasun handiagoa dute emakumeen artean kontratazioan bizitzen diren egoera irregular eta prekarioek, eta egoera iraunkorragoa da, halaber.


Gainera, beren egunerokoan estresak eta zailtasunek lan-kargari erantzuteko eragin handiagoa dutela adierazten dute.

- Prestakuntza-mailan, emakumeek sarbide txikiagoa dute maila handiagoko prestakuntza arautura (masterra) eta beste prestakuntza ez-arautuek pisu bikoitza hartzen dute haien artean (% 33).
- Azkenik, segmentu industrialaren klabeak, emakume enplegatu gutxiago daude gizonak baino (% 40) eta gutxiago dira gerentzia-postuetan.

4. Sektorearen erronkak

4.1 Ikuspegi orokorra

39. grafikoa. Sektoreko erronka-esparru nagusien sailkapena segmentu industrial eta artistikoa bereiziz, 1etik 5erako eskala batean (garrantzi gutxienekoa eta garrantzitsua, hurrenez hurren)



Kontratazio-baldintzen eta prekarietatearen esparrua dugu gaur egun sektoreari erronka handienak planteatzen dizkion esparrua, segmentu industrialerako (bereziki) zein artistikorako (neurri

txikiagoan). Batezbesteko garrantzitik hurbil daude merkatu-baldintzen eta kontsumo-ohituren esparruak, lehenik, atzetik sektoreko agenteen gaitasuna eta gihar finantzarioa daudelarik. Azkenik,

aurreko guztiarekin alderatuta garrantzia txikiagoarekin, hor ditugu ingurune digitalaren funtzionamenduaren eta haren ondorioen, eta eskaintzaren baldintzen esparruak.

4.2 Esparruen araberrako xehetasuna


Kontratazio-baldintzak eta prekarietatea (1. postua):

erronka nagusia

Segmentu industrialerako zein artistikorako kontratazio-baldintzen eta prekarietatearen esparrua betiere erronka handienak planteatzen dituena bada ere, bi segmentuek norabide desberdinak markatzen dituzte erronkak identifikatzean. Segmentu industrialaren kasuan, lan-erregulazioa eta

kontratazio-baldintzak dira erronka nagusia, talde txiki eta ertainek bizirauteko duten zailtasunaren aurretik. Bigarren hori da, hain zuzen ere, garrantzitsuena segmentu artistikorako, artistaren estatutuaren garapenarekin batera.

40. grafikoa. Esparruari lotutako erronka nagusiaren balorazioa (%)




Merkatu-baldintzak eta kontsumo-ohitura (2. Postua): erronka nagusia

Merkatu-baldintzen eta kontsumo-ohituren esparruari dagokionez, musikaren kontsumoko ohitura-aldaketei aurre egitea da garrantzitsuen segmentu

industrialerako. Segmentu artistikoarentzako kezka hori partekatzen badu ere, merkatuko saturazioaren eta lehia ia pareko da.

41. grafikoa. Esparruari lotutako erronka nagusiaren balorazioa (%)




Gaitasuna eta gihar finantzarioa (3. postua): erronka nagusia

Erronka nagusi bat nabarmentzen da segmentu industrialaren gaitasunari eta

gihar finantzarioari buruzko esparrutik: dirulaguntzetara eta sektorerako laguntzetara bideratzen den aurrekontu publikoa. Berriz ere, segmentu artistikoarekin partekatzen da erronka

hori, baina kasu honetan babesleak lortzeko zailtasunak ere badu garrantzia. Hirugarrenik, agenteen bi profiletarako eta garrantzi baliokidearekin, kreditua lortzeko zailtasuna dago.

42. grafikoa. Esparruari lotutako erronka nagusiaren balorazioa (%)




Eskaintzaren baldintzak (4. postua): **erronka nagusia**

Eskaintzaren baldintzen esparrua zen garrantzi gutxieneko bi faktoreetako bat.

Kasu honetan bat egiten dute segmentu industrialak zein artistikoak. Bi profilek gehien aipatzen dutena ekitaldi musikalen antolakuntzari lotutako baldintzei buruzkoa da. Tarte handira daude produkzio-

kostuak eta, oso modu sekundarioan, sarreraren prezioaren inflazioa eta salmenta dinamikoaren bidezko ticketing eredua aipatzen dira.

43. grafikoa. Esparruari lotutako erronka nagusiaren balorazioa (%)




Ingurune digitalaren funtzionamendua eta haren ondorioak (5. postua): erronka nagusia

Azkenik, eragin dituen eta orain ere eragiten dituen eraldaketak gorabehera,

ingurune digitalari lotutako blokea dugu garrantzirik txikienekoa. Esparru horren barruan, dena den, ingurune digitaleko posizionamendua eta agerikotasuna, eta komunikazioa nabarmentzen dira, segmentu industrialarentzat bereziki. Oraingoan ere erronka hau segmentu artistikorako kezka

bat dela ikusi daiteke, baina kasu honetan monetizazio musikalerako eredu berrien sorkuntzarekin partekatutakoa. Egile-eskubideen gaia eta lizentziak eta Adimen Artifizialaren adopzioa edo horretara egokitzea izan dira gutxien aipatutako faktoreak.

44. grafikoa. Esparruari lotutako erronka nagusiaren balorazioa (%)



Adimen artifiziala eta eskubide digitalak

Segmentu industrialaren eta artistikoaren jarrera adimen artifizialaren eboluzioaren eta haren inpaktuaren aurrean desberdina da, eta segmentu industrialak da egoerara egokitzeko joera handiagoa duena. Hori gorabehera,


gutxi dira horri aurre egiten ari zaizkionak eta orain arte asmoak dira gehienbat. Kasuen erdietan, nola aurre egin behar zaion ez jakiteagatik.

Segmentu artistikoan, ordea, gehien-gehienek ez dira ezer egiten ari horren inguruan, eta ez daukate ezer aurreikusia (% 61,1). Berriz ere,


horri dagokionez zerbait egin nahi dutenen zati handi bat ez da oraindik ezer egiten ari nola aurre egin behar zaion ez dakitelako.

Bi segmentutan agenteen kopuru txiki bat nabarmentzen da, beren kontura ari baitira gehienbat Adimen Artifizialaren inpaktuari aurre egiten.

45. grafikoa. Agenteak adimen artifizialaren aurrean duten jarreraren arabera, segmentu industrialaren eta artistikoaren artean bereziz (%)



46. grafikoa. Agenteak egile eskubideen aurrean duten jarreraren arabera, segmentu industrialaren eta artistikoaren artean bereziz (%)



Eskubide digitalen kudeaketaren gai espezifikoa kezka handiagoa da segmentu industrialerako zein artistikorako (bereziki azken horretarako). Kasu honetan jarreraren aniztasun handiagoa dago, baina

immobilismoa oso murrizta da. Segmentu artistikoaren kasuan informazio-falta handiagoa ikusten da, gaiari nola aurre egin ez dakitelako ezer egiten ari ez diren agenteen talde handiago batekin. Ildo

horretan, eskubide digitalen kudeaketari aurre egiteko kanpo-laguntza elementu garrantzitsua da agenteen zati batentzat.

Laburpena

- Sektoreari erronka handienak planteatzen dizkion esparrua kontratazio-baldintzena eta prekarietatearena da. Segmentu industrialean eta artistikoan forma espezifikoak hartzen ditu kasu bakoitzean: lehenengorentzat lan-erregulazioa eta kontratazio-baldintzak dira gai nagusia, eta artisten segmentuarentzat, aldiz, talde txiki eta ertainen biziraupena, eta artistaren estatutuaren garapena dira erronka nagusiak.
- Erronken beste esparru nagusia merkatu-baldintzena eta kontsumo-ohiturena da. Segmentu industrialarentzat musikaren kontsumoko ohitura-aldaketek hartzen dute garrantzi handiena, baina artisten segmentuaren kasuan haien garrantzia merkatuaren saturazioak eta lehiak planteatzen duten erronkarekin orekatzen da.

- Gainerako esparruetan nabarmendu egiten da, segmentu industrialerako, sektorerako laguntza ekonomikoetarako aurrekontu publikoaren ehunekoa, musika-ekitaldien antolakuntzari lotutako baldintzei bideratutakoa, eta ingurune digitaleko posizionamendua eta agerikotasuna, eta komunikazioa.
- Artisten segmenturako garrantzitsuak da, halaber, babesleak lortzeko zailtasuna, eta sektoreari bideratutako aurrekontu publikoa hobetzearen antzeko garrantzia duela adierazten da. Musika-ekitaldiak antolatzeari lotutako baldintzak dira erronka nagusia eskaintzaren baldintzen esparruan. Ingurune digitalari eta haren ondorioei dagokienez, ingurune digitaleko posizionamenduak eta agerikotasunak, eta komunikazioak garrantzia partekatzen dute monetizazio digitalerako eredu berriak sortzeko erronkarekin.

- Esparru digitalarekin lotutako gaiak azken postuan daude. Zehazki galdetuta, Adimen Artifizialaren gaiak eskubide digitalarenak baino kezka gutxiago sortzen duela ikusten da baina ñabardurekin. Adimen Artifizialaren gaia garrantzitsuagoa da segmentu industrialarentzat artisten segmentuarentzat baino; azken kasu horretan, gehienek ez dute ezer egin eta ez daukate ezer egitea aurreikusia. Segmentu industrialean gaia aztertzeke borondate handiagoa dago, baina ezagutza eta bultzada falta da.
- Eskubide digitalen kudeaketa alderdi garrantzitsutzat nabarmentzen da artisten segmentuarentzat bereziki, eta kasu horretan ezagutza-falta da gaia jorratzeko oztopoetako bat. Halere, gehienak zerbait egiten ari dira jada horren inguruan (erdiek kanpo-laguntzarekin edo beste erdiek beren kontura).

5. Azken komentarioa

Sektoreko alderdi esanguratsu batzuk ikusarazten eta kuantifikatzen laguntzen du inkestak, industrien segmentuaren eta artisten segmentuaren artean bereiziz.

69 agente dituen sektorea nabarmentzen da segmentu industrialean, zuzenekoak produzitzen dituzten enpresen pisu nabarmenarekin. 646 pertsona enplegatzen dituztela kalkulatu da (zuzeneko ikuskizunetako teknikariak zehazki aurkitzeko premia eta haiek aurkitzeko zailtasuna nabariak dira) eta 39,5 milioi euroko diru-sarrerak sortzen ditu. Giza baliabideen eta baliabide ekonomikoen arloan gaitasun oso desberdina duten agenteek osatzen dute, mikroagente eta enpresa handiekin.

Artisten segmentuan ere errealtate dual hori ikusi daiteke adierazle eta aldagaien multzoan (forma juridikoak, diru-sarrerak, prestakuntza...), prekarietaterako etengabeko joera nabarmena izan arren.

Datuek agerian uzten dituzte sektorean dauden genero-desparekotasunak, eta emakumeek egoera txarragoak izaten dituzte neurri handiagoan eta modu iraunkorragoan.

Aurreko guztia kontuan izanda, ez da harritzekoa sektoreko erronka nagusia prekarietateari eta kontratazio-baldintzei lotutako gaien mende egotea, era berean, publikoen ohituren aldaketari aurre egin behar zaio, baina baita musikaren sorkuntza artistikoaren merkatuko konpetentziei ere.

Erronken klabeen, gai digitalak azken postuan geratzen dira. Adimen Artifizialaren gaian, segmentu industrialak nolabaiteko interesa du, baina erremintak eta bultzada falta dira. Eskubide digitalen gaian hainbat gauza egiten ari dira jada eta, egiten ari ez direnen artean, batez ere artisten segmentuan, ezagutza handiagoa behar da nahitaez.

Kapitulu bakoitzean nabarmendutako elementuen bilduma

Dimentsio industrial

% 35 inguru jardueraz eta dirulaguntzez bestelako iturrietatik datoz.

➤ Zuzeneko produkzioak osatzen du musikaren segmentu industrialaren multzo nagusia. Sarritan disko ekoizpenaren edo grabazio-estudioekin konbinatzen den jarduerak da.

➤ Segmentu industrialeko agenteek guztira 646 pertsona enplegatzen dituztela eta 39,5 milioiko diru-sarreraren bolumen totala mugitzen dutela kalkulatu da.

➤ Oro har, 2 eta 5 langile arteko enpresak dira; nahiz eta, pertsona bakarreko agenteak, 15 langiletik gorako agenteak adina badiren. Heterogeneotasun nabaria dago, horrenbestez.

➤ Diru-sarrerei dagokienez ere hori bera ikusi daiteke, nahiz eta diru-sarreraren tarteko tarteak ohikoenak izan, 80.000 euro baino gutxiago fakturatzen duten agenteak milioi bat baino gehiago fakturatzen dutenak adina dira.

➤ Sektoreko industria-segmenturako, kasuen erdian diru-sarrerak musikatik datoz erabat, eta beste erdian nagusiak dira (beste batzuekin osatuak badira ere) edo baita sekundarioak ere. Oro har, desiratutako egoera bat da hau, dibertsifikazio-egoera bat dagoela adieraziz. Ikusiko denez, diru-sarreraren osagarritasunaren arazoa askoz ere nabariagoa da artisten artean.

➤ Sektoreko agente txikien artean (urtean 80.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak) dirulaguntzen pisua gainerakoen artean baino askoz ere handiagoa da, kasu guztietan ere diru-sarrera nagusiak jardueratik datozen arren. Tamaina handieneko agenteetan (urtean milioi bat baino gehiagoko diru-sarrerak) tarteetakoetan ez bezalako patroia bat ikusi daiteke (jarduerak diru-sarreraren % 80-90 da tarte horietan): diru-sarreraren

➤ Sektorean zuzeneko ikuskizunen teknikariena da profilik eskatuena, eta musikaren segmentu industrialaren problematika espezifiko baten adierazgarri da hori. Beharrezko langileak kontratatuzko zailtasun nabarmenak dituela adierazten du sektorearen zati handienak.

➤ Prestakuntzaren eta kompetentzien klabean, aldiz, nabarmentzen du balioetsiena ibilbide profesionala dela lehenik eta egindako ikastaro espezifikoak bigarrenik. Soinu-teknikarien prestakuntza espezifikoak daudela kontuan izanda, litekeena da hobekuntzarako marjina izatea eskaintza-eskari loturan eta lanbidea erakargarri egiteko premian.

Profesionalizazio artistikoa

➤ Artista musikalen segmentuan lan egiteko modu nagusia langile autonomoaren erregimena da, baina emanaldien araberako lan-kontratazioa ere garrantzitsua da halaber.

➤ Nabarmentzekoa da lan informala zati txiki baina esanguratsua dela, zenbait bereiztasuni gehitzen zaiona, hala nola autonomoen erregimeneko altak eta bajak (aldizkakotasun oso nabarmena duelarik).

➤ Artista musikalen segmentuko pertsonak adierazten dutenez, oso sarri bizi dituzte egoera irregularrak eta prekarietatearekin lotutako egoerak kontratazio-baldintzetan. Inork ez du adierazten ez dituela inoiz bizi izan.

Pertsonak oro har adierazten dute egoera horiek oraindik ere bizi dituztela, batzuetan sarritasun txikiagoarekin bada ere, eta ez direla soilik beren karreraren hasieran gertatutako fenomeno bat.

➤ Artisten segmentuaren diru-sarrerak askotariko errealitatea erakusten dute, eta berriz ere diru-sarrera txikiko kasuak (urtean 15.000 euro baino gutxiago) diru-sarrera handiko kasuak (urtean 50.000 euro baino gehiago) adina dira.

➤ Segmentu industrialean gertatzen denaren aurka, artisten segmentuan egoera nagusia diru-sarrera guztiak sektore berean garatutako jardueratik etortzea bada ere, beren jarduera sektorean bigarren mailakoa dela

adierazten duten agenteen ehunekoa 10etik 3koa da eta, praktikan gehienentzat, hori ez da egoera desiragarria.

➤ Irakaskuntza da artistentzako diru-sarrerak osatzeko estrategia nagusia, eta kasu askotan horixe izaten da irtenbide nagusia, hain zuzen ere.

➤ Segmentu artistikoaren prestakuntza-maila ere oso desberdina da: gutxieneko esanguratsu batek (% 22) ez dauka prestakuntza artistiko arautua eta bosten batek (% 15) funtsezko prestakuntza bat du; erdiak gutxi gorabehera goi-mailako titulazioa eta master-titulazioa du. Gaitasun artistikoen berezitasuna uzten du horrek agerian, eta sarritan praktikarekin, ikaskuntza autodidaktarekin eta talentuarekin daude lotuta.

Ibilbide artistikoak

› Ibilbide artistiko prekario eta ezegonkorak ohikoak dira sektorean, baita jada nolabaiteko egonkortasuna lortu dutenentzat ere. Artista musikalen segmentuko pertsona askok nahitaez konbinatu behar dute beren lan artistikoa beste lan batzuekin, nahiz eta, ikusi zen bezala, beren nahia lan horretan osorik aritzea izango litzatekeen.

› Errealitate desberdin baten irudia indartzen dute datuek, eta ikusi daiteke prekaritatea askoz ere lotuagoa dagoela berrikiago sektorean sartutako pertsonekin (batezbestekoarekin alderatua; 2005etik aurrera).

› Kontaktu pertsonalen sarea eta kolaborazioen garapena nabarmentzen dira ibilbideen garapenaren funtsezko faktore gisa. Batezbestekoa baino

berrikiago sartutako pertsonak adierazten dute hori bereziki.

› Bigarren faktore garrantzitsuena esperientzia eta praktika metatua da, non karrera zaharragoak zein berriagoak dituzten pertsonak bat datozen.

› Bereziki interesgarria da faktoreen irakurketa egitea denboran zaharragoak diren karrerak bereiziz. Kasu horietan garrantzi askoz ere handiagoa ematen zaie laguntza publikoari lotutako faktoreei (laguntza ekonomikoetan zein gauzazkoetan) eta prestakuntzari (hasierakoari zein ezagutzen eguneratzeari). Garrantzitsuagoa iruditzen zaie, halaber, programazio ezagunen parte izatea beren karrerak garatzeko, baina ez hainbeste sariak eta arreta mediatikoa.

Lan-karga

› Lan-kargaren multzo osorako balorazioak zertxobait negatiboa izateko joera du, eta zailtasunek eta estresak markatzen dute.

› Laneko egunerakoa estres eta zailtasun handiagoarekin bizitzen dute pertsonak segmentu artistikoan. Segmentu industrialean, agente askok gehiegizko lan-karga dagoela onartzen badute ere, egoera normalak ohikoagoak dira.

› Segmentu bakoitzean lan-karga nagusiak, ohi denez, bere jarduera nagusiarekin du zerikusia (gehienbat, kasu batean ekitaldien kudeaketarekin eta ekoizpenarekin, eta bestean sorkuntzarekin eta entseguarekin). Horregatik, nabarmentzekoa da kudeaketa administratiboa (legala, fiskala, kontablea...) segmentu

industrialean karga handiagoa dela. Segmentu artistikoan, aldiz, komunikazio eta management jarduera dira, irakaskuntza emateko eta prestakuntza propioa egiteko premiarekin batera.

Genero-ikuspegia

➤ Adierazleen eta aldagaien multzoa hartuta, emakumeek emaitza okerragoak lortzen dituzte gizonekin alderatuta.

➤ Emakumeak beranduago sartu dira sektorean eta, nahiz eta gazteagoak ere izan, ibilbide artistiko prekarioagoak dituztela adierazten dute. Emakumeen % 15ek egoera oso ahulak adierazten dituzte (ia gizon bakar batek ere ez ditu adierazten), eta gizonen % 28k ibilbide sendoagoak adierazten dituzten bitartean, emakumeen % 10ek soilik adierazten dute hori.

➤ Emakumeen espektatibak gizonenak baino pesimistagoak dira, eta ia emakume bakar batek ere ez du aurreikusten 2024a urte ona izango denik (gizonen kasuan, % 22k aurreikusten dute). Gainera,

ziurgabetasuna handiagoa da emakumeen artean (% 15ek ez dute espektatibei buruzko galdera erantzun, eta gizonen artean % 3 dira soilik).

➤ Artisten diru-sarreraren tarteei erreparatuz, emakumeak diru-sarrera txikien tartean gehiengoak direla ikus daiteke (10.000 euro baino gutxiago; haien % 43) eta gizonak gehiengoak direla diru-sarrera handien tartean (30.000 euro baino gehiago; haien % 47).

➤ Horrela, ez da harritzekoa, gehienak musikatik datozen diru-sarreretatik bizi badira ere, gizon baino emakume gehiago izatea beren diru-sarrerak osatu behar dituztenak.

➤ Sarritasun handiagoa dute emakumeen artean kontratazioan bizitzen diren egoera irregular eta prekarioek, eta

egoera iraunkorragoa da, halaber. Gainera, beren egunerokoan estresak eta zailtasunek lan-kargari erantzuteko eragin handiagoa dutela adierazten dute.

➤ Prestakuntza-mailan, emakumeek sarbide txikiagoa dute maila handiagoko prestakuntza arautura (masterra) eta beste prestakuntza ez-arautuek pisu bikoitza hartzen dute haien artean (% 33).

➤ Azkenik, segmentu industrialaren klabeak, emakume enplegatu gutxiago daude gizonak baino (% 40) eta gutxiago dira gerentzia-postuetan.

Sektorearen erronkak

- Sektoreari erronka handienak planteatzen dizkion esparrua kontratazio-baldintzena eta prekarietatearena da. Segmentu industrialean eta artistikoan forma espezifikoak hartzen ditu kasu bakoitzean: lehenengorentzat lan-erregulazioa eta kontratazio-baldintzak dira gai nagusia, eta artisten segmentuarentzat, aldiz, talde txiki eta ertainen biziraupena, eta artistaren estatutuaren garapena dira erronka nagusiak.
- Erronken beste esparru nagusia merkatu-baldintzena eta kontsumo-ohiturena da. Segmentu industrialarentzat musikaren kontsumoko ohitura-aldaketek hartzen dute garrantzi handiena, baina artisten segmentuaren kasuan haien garrantzia merkatuaren saturazioak eta lehiak planteatzen duten erronkarekin orekatzen da.
- Gainerako esparruetan nabarmendu egiten da, segmentu industrialerako, sektorerako laguntza ekonomikoetarako aurrekontu publikoaren ehunekoa, musika-ekitaldien antolakuntzari lotutako baldintzei bideratutakoa, eta ingurune digitaleko posizionamendua eta agerikotasuna, eta komunikazioa.
- Artisten segmenturako garrantzitsuak da, halaber, babesleak lortzeko zailtasuna, eta sektoreari bideratutako aurrekontu publikoa hobetzearen antzeko garrantzia duela adierazten da. Musika-ekitaldiak antolatzeari lotutako baldintzak dira erronka nagusia eskaintzaren baldintzen esparruan. Ingurune digitalari eta haren ondorioei dagokienez, ingurune digitaleko posizionamenduak eta agerikotasunak, eta komunikazioak garrantzia partekatzen dute monetizazio digitalerako eredu berriak sortzeko erronkarekin.
- Esparru digitalarekin lotutako gaiak azken postuan daude. Zehazki galdetuta, Adimen Artifizialaren gaiak eskubide digitalarenak baino kezka gutxiago sortzen duela ikusten da baina ñabardurekin. Adimen Artifizialaren gaia garrantzitsuagoa da segmentu industrialarentzat artisten segmentuarentzat baino; azken kasu horretan, gehienek ez dute ezer egin eta ez daukate ezer egitea aurreikusia. Segmentu industrialean gaia aztertzeke borondate handiagoa dago, baina ezagutza eta bultzada falta da.
- Eskubide digitalen kudeaketa alderdi garrantzitsutzat nabarmentzen da artisten segmentuarentzat bereziki, eta kasu horretan ezagutza-falta da gaia jorratzeko oztopoetako bat. Halere, gehienak zerbait egiten ari dira jada horren inguruan (erdiek kanpo-laguntzarekin edo beste erdiek beren kontura).



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura

MUSIKA BULEGOA

Batzen
gaituena.

Euskal Herriko musikaren sektorearen egoera, premiak eta erronkak

Euskal Herriko Musika
Bulegoa elkartearen
inkestaren emaitza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

